



2025 BASQUE CIRCULAR SUMMIT

2025eko apirilaren 2an, 3an eta 4an
Euskalduna Jauregia – Bilbao
basquecircularsummit.eus



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



2025
BASQUE
CIRCULAR
SUMMIT

Edukien aurkibidea

01 Basque Circular Summit 2025: Time for Action

02 Basque Circular FORUM: biltzarra

03 Basque Circular EXPO: soluzio zirkularren erakusketa

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



2025
BASQUE
CIRCULAR
SUMMIT

Edukien aurkibidea

01 Basque Circular Summit 2025: Time for Action

02 Basque Circular FORUM: biltzarra

03 Basque Circular EXPO: soluzio zirkularren erakusketa

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

01 Basque Circular Summit 2025: Time for Action

Time for Action:

Bost urte bete dira **“Europako Itun Berdea”** onartu zenetik. 2020an ezarri zen hazkunde eta garapen ekonomikorako estrategia horrek Europako eredu ekonomikoa eredu zirkular bihurtzeko apustu estrategikoa proposatzen du.

Europako Batzordeak apustu hori berretsi du plazaratu berri duen **“Itun Industrial Garbia”** rekin.

Europak eredu ekonomikoaren aldaketarako beharrezko oinarriak ezarri ditu, ekimen politiko berrien bidez (zuzentarauak, arautegiak, araudiak, merkatu tresnak...). Horretarako, jarduera-sektore nagusiak eraldatu behar dira, eta kontsumitzaileak ahaldu behar dira, produktu jasagarrien merkatu berrian protagonista izan daitezen.



01 Basque Circular Summit 2025: Time for action

Time for Action:


Eraldaketarekin batera, **finantza-sektorea**ren ikuspegi berria garatuko da, **aktibo jasangarrietan egindako inbertsioak** positiboki diskriminatuko direlarik, eta horrek gardentasun-etapa berri bat irekiko du eremu korporatiboan, jasangarritasunari buruzko informazioa emateari dagokionez.

Hori guztia egungo ingurumen-erronkei aurre egiteko: **klima-aldaketa, baliabideen agortzea eta biodibertsitatearen galera**, eta eredu ekonomiko berri bati bide emateko, non lehiakortasuna eta jasangarritasuna eskutik doazen.

Aldaketarako oinarriak zehaztu dira, eta gure ekonomietan bete beharreko erronka, epe eta jarduketan ziurtasuna badago. Etapa berri bat hasi da. Ekiteko garaia da. **It's time for action!**



Hiru kongresu batean:



Nazioarteko eta tokiko Ekonomia zirkularrean adituak diren pertsonen **topagunea**, jasangarritasuna enpresa-jardueran txertatzeko **joera nagusiak azaltzeko eta eztabaidatzeko**.

Euskadin garatutako soluzio zirkularren erakusketa. Bertan, ekonomia zirkularren printzipioak aplikatzeko berritasun nagusiak (**produktuak, zerbitzuak eta teknologiak**) ezagutu ahal izango dira.

Ekonomia zirkularrean lan egiten duten **eragile eta ekimen** nagusiak biltzen dituen **stand-gunea**.

01 Basque Circular Summit 2025: Time for action

Helburuak:

Basque Circular Summit 2025en helburua, aurreko edizioetan bezala,

ekonomia zirkularrak enpresei eta Euskadiko ehun sozioekonomiko osoari **eskaintzen dizkien erronkak eta aukerak aztertzea** da. Gainera,

orain arte egindako lana erakutsi nahi du, ekintza berriak inspiratzeko.

Hauek dira Kongresuaren helburuak:



Lege- eta arau-garapenean egindako aurrerapenak partekatzea

eta baita azken urteotan Europako Itun Berdearen esparruan ekonomia zirkularrean egin diren berrikuntzak ere.



Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa erakustea

enpresei eta Euskadiko sare sozioekonomiko osoari ekonomia zirkularreko eredu berrirako beharrezkoa den trantsizioan laguntzeko.



Euskadi nazioartean ikusaraztea eta ezagutaraztea

ekonomia zirkularraren printzipioak aplikatzeko abangoardia gisa.



Ekonomia zirkularrean egindako lana eta lortutako emaitzak ikusaraztea

EAEko enpresek, bai banaka, bai Euskadin martxan jarri diren lankidetza publiko-pribatuko ekimenetan lortutakoa.



Irizpideak ematea eta ekintzara bultzatzea

euskal enpresek, erakunde publikoek eta tokiko erakundeek, esparru akademikoak eta herritarrek ekonomia zirkularraren aldeko apustua indartzeko.

01 Basque Circular Summit 2025: Time for action

Jasangarria ingurumenerako ekitaldia:

Basque Circular Summit 2025 ekitaldiaren antolaketa-taldetik, eta **ingurumen-hobekuntza** etengabearekin hartuta dugun konpromisoa islatuz, ardatz horien inpaktua ahalik eta gehien murriztu nahi izan dugu, eta horregatik **Erronka Garbiaren ziurtagiriaren** printzipioak aplikatu zaizkio Batzarraren antolaketari. Hori eginda, lortu egin dugu ziurtagiria.

Erronka Garbia Eusko Jaurlaritzako Ihobe sozietate publikoaren bidez abiatutako ziurtagiri bat da, ingurumen-neurriak diseinu eta antolaketaren alorrean integratzen dituzten ekitaldiak aitortzen dituena. Asmoa da saritzea **ekitaldiaren eraginez ingurumenaren gainean sor daitezkeen inpaktu negatiboak minimizatzeko ekimenak**.



ERRONKA GARBIA

EKITALDI EVENTO

JASANGARRIA INGURUMENERAKO
AMBIENTALMENTE SOSTENIBLE



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE

01 Basque Circular Summit 2025: Time for action

Tokia:

Palacio Euskalduna Jauregia Bilbao

Abandoibarra Etorb., 4,
Abando, 48011 Bilbao,
Bizkaia





2025
BASQUE
CIRCULAR
SUMMIT

Edukien aurkibidea

01 Basque Circular Summit 2025: Time for Action

02 Basque Circular FORUM: biltzarra

03 Basque Circular EXPO: soluzio zirkularren erakusketa

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



2025 BASQUE CIRCULAR FORUM



Aretoen eta edukien banaketa:

1. EGUNA - APIRILAK 2			
09:00 - 10:00	ONTZIAK (SP1-1)	EHUNGINTZA (SP1-2)	SIDE EVENT 1-1
10:30-11:30	HASIERA: EUROPAKO ITUN BERDETIK ITUN INDUSTRIAL GARBIRA (OB1-1)		
11:30 - 12:00	ATSEDENA. KAFAA		
12:15 - 13:15	LEHENGAI KRITIKOAK (SP1-3)	ERAIKUNTZA MATERIALAK (SP1-4)	SIDE EVENT 1-2
13:45 - 15:00	BAZKARIA		
15:30 - 16:30	EKODISEINUKO ARAUTEGIA (OB1-2)		
17:00 - 18:00	PRODUKTUAREN PASAPORTE DIGITALA (SP1-5)	KONPONTZEKO ESKUBIDEA (SP1-6)	SIDE EVENT 1-3
18:00	SAIO-AMAIERA		
18:00 - 19:00	NETWORKING		

2. EGUNA - APIRILAK 3			
09:00 - 10:00	UDALERRI ZIRKULARRAK (SP2-1)	CSR ZUZENTARUA (SP2-2)	SIDE EVENT 2-1
10:30-11:30	FINANTZA JASANGARRIAK (OB2-1)		
11:30 - 12:00	ATSEDENA. KAFAA		
12:15 - 13:15	HONDAKINEN KUDEAKETA (SP2-3)	ETE-EN JASANGARRITAS UNAREN EBALUAZIOA (SP2-4)	SIDE EVENT 2-2
13:45 - 15:00	BAZKARIA		
15:30 - 16:30	KONTSUMITZAILEAREN ZEREGINA EKONOMIA ZIRKULARREAN (OB2-2)		
17:00 - 18:00	GREENWASHING (SP2-5)	EUROPAKO TAXONOMIA (SP2-6)	SIDE EVENT 2-3
18:00	SAIO-AMAIERA		
18:00 - 19:00	NETWORKING		

3. EGUNA - APIRILAK 4			
09:00 - 10:00	CLIMATE & CIRCULARITY CALCULATOR (SP3-1)	NEGOZIO-EREDU ZIRKULARRAK (SP3-2)	SIDE EVENT 3-1
10:30-11:30	TEKNOLOGIA GARBIAK SUSTATZEA (OB3-1)		
11:30 - 12:00	ATSEDENA. KAFAA		
12:15 - 13:15	ADIMEN ARTIFIZIALA (AA) ETA ZIRKULARTASUNA (SP3-3)	MATERIALEN ERAGINKORTASUN EKO EKOBERRIKUNTZA (SP3-4)	SIDE EVENT 3-2
13:15	SAIO-AMAIERA		
13:15 - 14:15	NETWORKING		



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

1. eguna: 2025eko apirilaren 2a, asteazkena

OSOKO BILKURAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

OB1-1



2025eko apirilaren 2a
10:30 – 11:30



oB aretoa
(600
pertsona)

HASIERA: EUROPAKO ITUN BERDETIK ITUN INDUSTRIAL GARBIRA

2020an, Europako Batzordeak “**Europako Itun Berdea**” jarri zuen martxan, eta, haren esparruan, Europa kontinente zirkularrago bihurtu nahi duten **130 lege-testu berri** baino gehiago garatu dira.

Azken hauteskundeetan sortu den Europako Parlamentu berriarekin aldi berri bat hasiko da; bertan, lege-testu horietako neurriak bete-betean aplikatuko dira, eta “**Itun industrial garbi**” berria eta etorkizuneko “**Ekonomia Zirkularrari buruzko Europako Legea**” garatuko dira ere. Saio honetan, esparru global hori eta enpresek eta erakundeek **lehiakortasuna eta zirkulartasuna** bateratzeko duten zeregina aztertuko dira.

OB1-2



2025eko apirilaren 2a
15:30 – 16:30



oB aretoa
(600
pertsona)

EKODISEINUKO ARAUTEGIA

2024ko ekainean behin betiko argitaratu zen 2024/1781 Arautegia; horren bidez, **produktu jasangarriei aplikatu beharreko diseinu ekologikoko betekizunak** ezartzeko esparrua jarri zen, eta baita produktu-talde espezifikoentzat, haien **zirkulartasuna, errendimendu energetikoa** eta **ingurumen-jasangarritasuneko** beste alderdi batzuk hobetzeko.

EBko **merkatuan saltzen diren ondasun fisiko kategoria guztietarako** da, elikagaiak, pentsuak eta sendagaiak izan ezik. Europako Batzordeak **2025eko apirilaren 19**ra arteko epea du **lehentasunezko taldearen zerrendan** jasotako produktuen ekodiseinu-baldintzak ezartzeko epeak jasotzen dituen lan-plana egiteko.

1. eguna: 2025eko apirilaren 2a, asteazkena

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP1-1



2025eko apirilaren 2a
09:00 – 10:00



0D aretoa
(300
pertsona)

ONTZIAK

EBko biztanle bakoitzak **189 kg ontzi-hondakin** sortu zituen **2021ean**. Hamar urtetan, **% 20 baino gehiago hazi da** kopurua. Egoera horri buelta emateko, ontzien inguruko lege-esparrua etengabe garatzen da. 2023an **Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko Errege-Dekretua** onartu ondoren, 2024aren amaieran **Ontziei eta Ontzi-hondakinei buruzko Europako Arautegia** argitaratuko da. Haren helburu nagusia ontzien hondakinak **murriztea, berrerabilpena** eta **betetzea** sustatzea, eta 2030erako ontzi guztiak **birziklagarriak** izango direla ziurtatzea da.

Saio honetan, lege-baldintza berriak aztertuko dira, eta ontziak hobetzen erreferentzia diren enpresen kasu arrakastatsiak erakutsiko dira.

SP1-2



2025eko apirilaren 2a
09:00 – 10:00



0A aretoa
(150
pertsona)

EHUNGINTZA

Europarrek, batez beste, **26 kg oihal** kontsumitzen dituzte **urtero**, eta 11 kg inguru botatzen dituzte. Erabilitako arropa EBtik kanpo esporta daiteke, baina gehiena (% 87) **errautsen da edo zabortegietan uzten da**.

Moda azkarraren ("**fast-fashion**") gorakada erabakigarria izan da kontsumoa areagotzen. Egoera horri buelta emateko, Europako Batzordeak 2022ko martxoan estrategia berri bat aurkeztu zuen, ehunak jasangarriagoak, konpongariagoak, berrerabilgarriagoak eta birziklagarriagoak izan daitezen, moda azkarrari aurre egiteko eta sektorean berrikuntza pizteko.

Estrategia berriak **ekodiseinu-baldintza berriak** eta kontsumitzailearentzako **informazio argiagoa** biltzen ditu, eta enpresei **erantzukizuna** beren gain hartzeko eta euren eraginak minimizatzeko eskatzen die.

1. eguna: 2025eko apirilaren 2a, asteazkena

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP1-3



2025eko apirilaren 2a
12:15 – 13:15



0D aretoa
(300
pertsona)

LEHENGAI KRITIKOAK

Garrantzi ekonomikoak eta hornidura-arriskuak **2024/1252 Arautegian** jasotzen diren **34 lehengai kritikoren** Europako zerrenda definitzen dute. Erregelamendu horrek **oinarrizko lehengaien hornidura segurua eta jasangarria bermatzeko** esparrua ezartzen du, eta 2024ko apirilean argitaratu zen ofizialki.

Lehengai horietatik erdiak estrategikoak dira (horien artean, **aluminioa** eta **kobrea**), trantsizio energetiko eta digitalerako erabakigarriak direlako. Europako araudi berriak metal eta mineral horiekiko **mendekotasuna murriztu** nahi du, eta, aldi berean, **ingurumen-azterna minimizatu, ekodiseinuaren, I+G+Baren eta birziklatzearen** bidez. Enpresa aurreratuak erronka horri aurre egiten ari dira dagoeneko.

SP1-4



2025eko apirilaren 2a
12:15 – 13:15



0A aretoa
(150
pertsona)

ERAIKUNTZA MATERIALAK

Europako eraikuntza-sektoreak funtsezko zeregina du ekonomian. 3,4 milioi enpresak osatzen dute; **EBko barne produktu gordinaren % 9** inguru sortzen dute, eta **18 milioi lanpostu zuzen** sortzen dituzte. Aldi berean, industriak **eraikuntza- eta eraipen-hondakinak (EEH)** ere sortzen ditu, EBn sortzen diren hondakin guztien % 25-30, eta horrek hondakin-fluxu garrantzitsuenetako bat bihurtzen du industria hori.

Eraikinen eta eraikuntza-materialen jasangarritasuna hobetzeko, tresna berriak sortu dira, hala nola **Eraikuntza Produktuen Araudia (CPR)** edo **Levels sistema**. Saio honetan sektorearen egungo egoera eta joera berriak aztertuko dira.

1. eguna: 2025eko apirilaren 2a, asteazkena

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP1-5



2025eko apirilaren 2a
17:00 – 18:00



0D aretoa
(300
pertsona)

PRODUKTUAREN PASAPORTE DIGITALA

Produktu baten pasaporte digitala produktuen jasangarritasunarekin lotutako **informazioa elektronikoki erregistratzeko, prozesatzeko eta hornidura-kateko enpresen, agintarien eta kontsumitzaileen** artean **partekatzeko** balio duen informazio-sistema da. Hainbat lege-testutan agertzen den neurrietako bat da, eta derrigorrezkoa izango da produktu askorentzat, **osagaiak** eta **tarteko produktuak** barne.

Saio honetan, produktuaren pasaporte digitala sektoreka zelan aplikatzen ari den aztertuko dugu, bai eta haren betebeharrak eta mugak ere, eta pasaportearen **kasu arrakastatsuak** aztertuko ditugu zenbait balio-kateetan.

SP1-6



2025eko apirilaren 2a
17:00 – 18:00



0A aretoa
(150
pertsona)

KONPONTZEKO ESKUBIDEA

Konpontzeko eskubidearen politikak produktu bat konpontzeko behar diren tresna, pieza eta eskuliburu guztiak **herritarrei eta enpresa konpontzaileei** ematera behartzen ditu fabrikatzaileak. **2024ko ekainaren 13ko 2024/1799 Zuzentarau** berriaren esparruan jarri da martxan; bertan, **ondasunen konponketa sustatzeko** arau komunak ezartzen dira.

Zuzentarau berri horri esker, eta produktua **etiketatzeko sistema berriei** esker, kontsumitzaileentzat errazagoa izango da produktu bat konpontzea erabakitzea, hura ordezkatu beharrean. Gainera, **konpontze-zerbitzuen irisgarritasuna, gardentasuna eta erakargarritasuna** handitu egingo ditu, eta aukera emango du konponketaren inguruko **negozio-jarduera berriak** garatzeko.

2. eguna: 2025eko apirilaren 3a, osteguna

OSOKO BILKURAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

OB2-1



2025eko apirilaren 3a
10:30 – 11:30



oB aretoa
(600
pertsona)

FINANTZA JASANGARRIAK

Gizarte eta ekonomia zirkularrerantz aurrera egiteak badu zerikusia finantzen munduarekin ere. Finantza jasangarrietan, **inbertsio-erabakiak hartzeko prozesuan** ingurumen, gizarte eta gobernu onarekin lotutako alderdiak kontuan hartzen dira. Irizpide horiek guztiak **IGG** (edo **ESG** ingelesez) **irizpide** gisa ezagutzen dira.

Finantza jasangarriek **garapen jasangarria sustatzen duten hainbat finantza-produktu** diseinatzeko aukera ematen dute, eta **errentagarritasuna eta jasangarritasuna** orekatzen saiatzen dira. Saio honetan, European ekonomia zirkularragoa bultzatzeko finantza-erakundeek duten zeregina aztertuko dugu.

OB2-2



2025eko apirilaren 3a
15:30 – 16:30



oB aretoa
(600
pertsona)

KONTSUMITZAILEAREN ZEREGINA EKONOMIA ZIRKULARREAN

Kontsumitzaileek kontsumo-eredu jasangarriagoak bultzatzeko gaitasun handia dute. **Hobeto informatuta, hobeto babestuta eta hobeto hornituta** dauden kontsumitzaileekin bakarrik izango dugu benetako trantsizio ekologikoa.

Horretarako, tresna berriak jarri dira martxan, hala nola 2024ko otsailaren 28ko 2024/825 Zuzentaraua, **kontsumitzaileak ahalduntzeari** buruzkoa, eta gainera, ingurumen-arrazoibideei buruzko zuzentaraua ("**green claims**") ere prestatzen ari da. Saio honetan, kontsumitzaileek kontsumo-ereduak aldatzeko duten zeregina nola indartu aztertuko da.

2. eguna: 2025eko apirilaren 3a, osteguna

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP2-1



2025eko apirilaren 3a
09:00 – 10:00



0D aretoa
(300
pertsona)

UDALERRI ZIRKULARRAK

Ekonomia linealetik ekonomia zirkularrerako aldaketak ingurumeneko eraginak eta kanpoko baliabideen mendekotasuna murrizten laguntzen du. Paradigma aldaketa hori lortzeko udalerriek duten zeregina funtsezkoa da, batetik, **herritarrengandik hurbil** daudelako, eta hori oso garrantzitsua da ekonomia zirkularren garrantziaz kontzientziatzeko eta ohitura jasangarriak ezartzeko, eta, bestetik, **hondakinetan, energian, mugikortasunean, hirigintzan eta beste hainbat gaietan dituzten eskumenengatik.**

Foro honetan, Europan egin diren ekimenak aztertuko dira, hala nola, **CCRI - Circular Cities and Regions Initiative** eta **The Circular City Centre - C3**, eta gure udalerrietan nola aplikatu ahal diren ere aztertuko da.

SP2-2



2025eko apirilaren 3a
09:00 – 10:00



0A aretoa
(150
pertsona)

CSRZUZENTARAUUA

Europar Batasunak **gardentasun korporatiboa** bultzatu nahi du; horretarako, **Jasangarritasun Korporatiboaren Txostenari buruzko Zuzentaraua (CSRZ)** derrigorrezkoa izango da 2025etik aurrera. Zuzentarau horrek jasangarritasun-txostenak egiteko betebeharra enpresa askoz gehiagotara zabaltzen du (handiak zein ertainak), eta **ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-adierazleak (ESG)** hedatzeko estandar berriak ezartzen ditu.

Saio honetan, enpresek eta adituek **zuzentarau honen erronkak** aztertuko dituzte, eta baita **gardentasun korporatiboak lehiakortasuna eta inbertitzaileekiko harremana hobetzeko** duen garrantzia ere.

2. eguna: 2025eko apirilaren 3a, osteguna

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP2-3



2025eko apirilaren 3a
12:15 – 13:15



oD aretoa
(300
pertsona)

HONDAKINEN KUDEAKETA

EBk **2.100 milioi tona hondakin** baino gehiago sortzen ditu **urtero**. Datuek erakusten dute hondakinen kopurua eta horiek kudeatzeko modua oso ezberdinak direla EBko herrialdeetan, baina ikusten da birziklapenak gora egin duela eta isurketak murriztu direla.

Hondakinak eta horiek ingurumenean duten eragina murrizteko, EBk **birziklapenari eta isuriei buruzko asmo handiko helburuak** jarri ditu, **eta hainbat korrante hobetzeko lanean ari da**. Helburua eredu jasangarriago baterako aldaketa sustatzea da: **ekonomia zirkularra**.

Horrez gain, Europa **Hondakinei buruzko Esparru-Zuzentaraua** berrikusten ari da, **elikagai- eta ehun-hondakinei** aurre egiteko. Hori guztia aztertuko da saio honetan.

SP2-4



2025eko apirilaren 3a
12:15 – 13:15



oA aretoa
(150
pertsona)

ETE-EN JASANGARRITASUNAREN EBALUAZIOA

Enpresen korporazio-estrategietan gero eta garrantzi handiagoa du jasangarritasunak, eta horrek erakundeek erronka globaletan duten erantzukizunari aurre egiteko modua asko aldatu dela erakusten du. Jasangarritasunaren ebaluazioak, beraz, ez die enpresa handiei bakarrik eragiten; izan ere, gero eta enpresa txiki eta ertain gehiagok erantzun behar diete beren **agente inbertitzaileek, finantza-erakundeek, bezeroek eta hornitzaile diren enpresek** jasangarritasunari buruz egiten dieten eskaerei.

Eskatutako informazio hori ETE baten egiturari egokitzea eta eskakizunak betetzeko eta **jasangarritasuna garatzeko laguntza-programak** garatzea izango dira saioaren gai nagusiak.

2. eguna: 2025eko apirilaren 3a, osteguna

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP2-5



2025eko apirilaren 3a
17:00 – 18:00



oD aretoa
(300
pertsona)

GREENWASHING

Jasangarritasun-aitorpenei buruzko **lege- eta arau-kontrolak** areagotu izanak, eta **kontsumitzaileek** produktuen jasagarritasunari buruzko **egiazko informazio egiaztatua gero eta gehiago eskatzeak**, **benetako kaltea** eragin dezakete gaur egun **“greenwashing” edo zuritze ekologiko** praktikak egiten dituzten erakundeen **izen onean eta finantzetan**.

Saio honetan, galdera hau erantzuten saiatuko gara: nola jakinaraz ditzakete enpresek **jasagarritasun arloan egiten dituzten ekimenak**, **greenwashing-eko salaketak jasotzera menturatu gabe**, **horrek ekarriko lukeen kalte ekonomiko eta ospearen kaltearekin?**

SP2-6



2025eko apirilaren 3a
17:00 – 18:00



oA aretoa
(150
pertsona)

EUROPAKO TAXONOMIA

Finantza-zerbitzuen eta inbertsio-funtsen merkatuan, inbertitzaileek eta finantzatzaileek gero eta gehiago bilatzen dituzte **jasagarri gisa sailka daitezkeen enpresen eta proiektuen inbertsioak eta finantzaketak**.

Europako taxonomia Europako Batzordea egiten ari den arautegiaren funtsezko zati bat da, finantza-sektoreak Europako ekonomiaren deskarbonizazioa eta ekonomia zirkularra lortzen lagun dezan. Sistema horren bidez, **inbertsio jasagarrietara bideratu nahi dira kapital-fluxuak**. Eta, horretarako, jarduera ekonomikoak sailkatzeko sistema bat sortu da, jarduera horien ingurumen-jasagarritasunaren maila finkatzeko.

3. eguna: 2025eko apirilaren 4a, ostirala

OSOKO BILKURA



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

OB1-1



2025eko apirilaren 4a
10:30 – 11:30



OB aretoa
(600
pertsona)

TEKNOLOGIA GARBIAK SUSTATZEA

Teknologia ezinbestekoa da industrian trantsizio zirkularra eta klimatikoa azkartzeko. Materialen eraginkortasunari laguntzen dioten teknologiei lehentasuna ematea, Europar Batasunak dagoeneko zehazten dituen **Teknika erabilgarri onenez** harago, **Teknologia Garbien Zerrendan** sartzeko aurretiko urratsa da. Zerrenda hori **Ihobek, EEEK eta SPRIk** sustatutako tresna fiskala da, eta ekipamenduaren inbertsio-kostuaren % 30eko kenkari fiskala ahalbidetzen du Sozietateen gaineko Zergaren kuotan.

Teknologia Garbien Euskal Zerrenda sozietateen gaineko zerga Euskadin ordaindu behar duten enpresei zuzenduta dago. Tresna hori ezagutzeak eta erabiltzeak **lehiakortasun- eta ingurumen-abantaila handiak** ekar ditzake.

3. eguna: 2025eko apirilaren 4a, ostirala

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP3-1



2025eko apirilaren 4a
09:00 – 10:00



0D aretoa
(300
pertsona)

CLIMATE & CIRCULARITY CALCULATOR

Ingurumen-hobekuntzan lan egiteko, **neurtzea da lehen urratsa**. Ingurumen ebaluazioa **erakundeen ikuspegitik** egiteak diagnostiko globala izatea, hobekuntzak identifikatzea eta ingurumen-helburuen jarraipena egitea ahalbidetzen ditu. **Produktu- edo zerbitzu-ikuspegiarekin** ebaluatuz, produktua edo zerbitzua diseinatzen den unetik ingurumen-inpaktua murrizteko erabakiak hartu ahal dira: hau da, ekodiseinatu ahal da.

Ingurumen-ebaluazio hori errazteko, lhobek **doako tresna informatiko** bat jarri du enpresen eskura, **erakundeen, produktuen eta zerbitzuen ingurumen-portaera bizi-zikloaren ikuspegiarekin erraz ebaluatzeko**.

SP3-2



2025eko apirilaren 4a
09:00 – 10:00



0A aretoa
(150
pertsona)

NEGOZIO-EREDU ZIRKULARRAK

Zerbitzazio jasangarriak, produktuaren fabrikazioan eta salmentan oinarritutako negozio-eredu tradizionaletik **erabileraren araberrako ordaintetan, emaitzen araberrako ordaintetan eta produktuaren balioa atxikitzean** oinarritutako negozio-eredura aldatzea dakar. Horrek, produktuen iraunkortasun handiagoa dakar, baina, lehenik eta behin, egungo negozio-eredua eraldatzea eskatzen du.

Joera horrek **zailtasun finantzario, operatibo, teknologiko eta komertzialak** ditu, baina inoiz baino aukera hobea da, besteak beste, digitalizazioan egin diren aurrerapenei esker. Saio honetan, negozio-eredu berri hori aplikatzen ari diren **gure inguruko enpresek** jarduerestrategia horretan sakonduko dute.

3. eguna: 2025eko apirilaren 4a, ostirala

SAIO PARALELOAK



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM

SP3-3



2025eko apirilaren 4a
12:15 – 13:15



0D aretoa
(300
pertsona)

ADIMEN ARTIFIZIALA (AA) ETA ZIRKULARTASUNA

Adimen artifiziala (AA) **“laugarren industria-iraultza”** deiturikoa eragin duten teknologien oinarrian dago. AAk **pertsonen gaitasunak osatu eta haien gaitasunak zabaldu** ditzake. AA eta beste iraultza handia konbinatzeak, ekonomia zirkularra, behar den aldaketa azkartu dezake.

AA ekonomia zirkularra sustatzeko nola erabili daiteken ezagutzea funtsezkoa izango da zenbait arlotan aplikatzeko, esaterako, **diseinu zirkularrean, negozio-eredu zirkularretan eta azpiegitura zirkularren optimizazioan**. Azken batean, AA sare eta sistema osoak berriz diseinatzeko erabili daiteke, hala nola hornidura-kate berriak edo alderantzizko logistikako azpiegitura globalaren optimizazioa.

SP3-4



2025eko apirilaren 4a
12:15 – 13:15



0A aretoa
(150
pertsona)

MATERIALEN ERAGINKORTASUNEN EKOBERRIKUNTZA

Euskadin gehien kontsumitzen diren materialen artean **metalak, mineralak, polimeroak eta egurra** daude.

Materialen fluxuak eta haien zirkulartasun maila aztertuta, **aukerak** ikusten dira, baina baita **arriskuak** ere. Enpresa eta teknologia sektoreekin hitz eginez, sinergia eta aukera potentzialak ikusten dira balio-kateetan, materialen produktibitatea handitzeko, Europar Batasunak ekonomia zirkularrean hartutako neurriak kontuan hartuta.

Saio honetan, gai honetan adituak diren pertsonen **aurkitutako enpresa-aukerak** aztertuko dituzte.

“Side events” azken zerrenda:

2025EKO URTARRILEAN ZEHAZTUKO DA:

BCS2025eko biltzar atalean, **Basque Circular FORUM**ean hain zuzen ere, programa ofizialarekin batera, 8 saio gorde dira **“side events”** edo ekitaldi paraleloak garatzeko.

Basque Circular VILLAGE osatzen duten erakundeek **ekitaldi paralelo horietako bat antolatzeko aukera** izango dute.

Horretarako, eskaera-inprimakian saioaren helburua, parte-hartzaile potentzialak eta publiko objektiboa adierazi beharko dute.

Eskaerak ebaluatu ondoren, lhobek azkenean onartutako saio paraleloen berri emango du, eta behar bezala sartu eta argitaratuko dira biltzarraren programa ofizialean.

Basque Circular VILLAGEn dauden erakundeek bakarrik ahal izango dute **“Side events”** prestatu.



2025
BASQUE
CIRCULAR
FORUM





2025
BASQUE
CIRCULAR
SUMMIT

Edukien aurkibidea

01 Basque Circular Summit 2025: Time for Action

02 Basque Circular FORUM: biltzarra

03 Basque Circular EXPO: soluzio zirkularren erakusketa

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



Herri-baltza
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD



2025 BASQUE CIRCULAR EXPO



Basque Circular EXPOren helburuak:



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO

Euskal enpresek ekonomia zirkularren arloan azken urteotan egindako aurrerapenaren berri emateko eta **Eusko Jaurlaritzak haiek egindako lana eskertzeko**, Basque Circular Summit 2025 barruan, aurreko edizioetan bezala, **soluzio zirkular erakusketa handi** bat egingo da, **Basque Circular EXPO 2025** izenekoa.

Konponbide zirkular berriak (produktuak eta/edo zerbitzuak) garatu dituzten euskal enpresa guztiek parte hartu ahal izango dute erakusketan, bai Ihobe sozietatearen laguntzarekin garatutakoak, bai baliabide propioekin garatutakoak, bai beste erakundeen laguntzarekin garatutakoak.



Parte hartzeko baldintzak:

PRODUKTUARI / ZERBITZUARI DAGOKIONEZ:

- Proposatutako konponbidea **gutziz garatuta egon behar da** eta **ekoizpen- edo merkaturatze-fasean** egon behar da. Prototipo ez-funtzionalek ez dute balio, ezta merkatura eramanez diren iraganeko garapenek ere.
- Aurreko aukerekin edo antzeko aukerekin konparatuz, konponbideak **ingurumena nola hobetu duen** frogatu behar du erakundeak; ingurumenarenganako eragina nola murriztu den kuantifikatu, bere ebaluazioaren bidez edo (ahal bada) ingurumen-eragina neurtzeko txosten ofizial baten bidez, hala nola **Produktuaren Ingurumen Adierazpena (EPD edo PIA), egiaztatutako karbono-aztarna, kanpoko berrikuspen kritikoa duen BZA...***

***OHARRA:** Ingurumen-informazio kuantifikaturik ez badago, baina proposatutako konponbidearen diseinuan ingurumen-portaera hobetzen duten neurriak aplikatu direla frogatu ahal bada, Ihobe sozietate publikoak **doako zerbitzua eman ahal izango du ingurumenarenganako eragina ebaluatu ahal izateko**, eta, hala, baldintza horri erantzun ahal izateko. Horretarako, zerbitzu hori eskuratu nahi duten enpresek proposatutako konponbidearen ingurumen-ebaluazioa egiteko behar den informazioa eman beharko diote Ihoberi.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



Parte hartzeko baldintzak:

ENPRESARI DAGOKIONEZ:

- **Helbide soziala edo gutxienez jarduera-zentro bat** EAEn izan behar du.
- **Zerga-betebeharrei** eta Gizarte Segurantzari **dagokienez, egoera erregularizatuta eduki** behar du, indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitezkeen mugetan.

Enpresa berak **proposamen bat baino gehiago** aurkeztu ahal izango du, baina, leku arrazoiengatik eta ahalik eta ordezkaritza handiena ziurtatzeko, **erakunde bakoitzak gehienez bi proposamen** aurkeztu ahal izango ditu. Enpresa parte-hartzaileen ardura da erakusketa osatuko duten produktuak epe eta modu egokian jasotzea eta lhoberi ematea, eta baita biltzarraren amaieran haiek jasotzea ere.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



Eskaera-inprimakia:

Hautagitzak aurkezteko inprimakiak **atal bi** izango ditu: bata, orokorra, enpresaren eta harremanetarako datuak jasotzeko, eta, bestea, produktuaren espezifikoa, erakusketan erakusteko. Halaber, beste euskarri dokumentu batzuk ere erantsi ahal izango dira (ziurtagiriak, zifrak, eskemak, bideoetarako estekak, argazkiak, etab.) gehienez ere hiru eranskin hautagaitza bakoitzeko.

ENPRESARI BURUZKO DATUAK:

- Enpresaren izena.
- Helbidea (kalea, zenbakia, PK, herria eta probintzia).
- IFZ.
- Web-a.
- Zer sektore ekonomikotakoa den
- Enpresak ba al du ingurumena kudeatzeko sistemarik? Zehaztu.
- Hautagaitza kudeatzeko harremanetarako pertsona/k. Izena, abizenak eta kargua / E-mail / Telefonoa.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



Eskaera-inprimakia:

PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAREN DATUAK (1/2):

(aurkeztutako konponbide bakoitzak bete beharrekoa)

- Aurkezten den konponbidea (produktua, zerbitzua, mota, modeloa...).
- Deskribapena (funtzionaltasuna, ezaugarri teknikoak...).
- Zehaztu zer garapen-fasetan dagoen (prototipo funtzionala, pilotua, merkatuan).
- Erakutsiko den elementuaren gutxi gorabeherako neurriak (luzera x altuera x sakonera) eta gutxi gorabeherako pisua.
- Behar bereziren bat du (forjatuaren erresistentzia, sare-konexioa...).
- Aurkeztutako produktuaren ingurumen-abantailen deskribapena (kualitatiboa).
- Zehaztu proposatutako konponbideak barne hartzen dituen zirkularitate-alderdiak (hautatu behar adina):

Arloa	Estrategia
1. Eragina enpresan murriztea.	Ingurumen-inpaktu txikiko materialak (birziklatuak, berriztagarriak...) Pisu eta/edo bolumen murriztua Ekoizpen-teknika eraginkorrak erabiltzea
2. Ingurumena banaketan zaintzea.	Ontzi eta enbalaje hobetua Banaketa eraginkorreko logistika
3. Ingurumena erabilera-fasean zaintzea.	Energia-kontsumo txikia Kontsumigarriak murriztea edo optimizatzea
4. Produktuaren bizitza luzeagoa.	Bezerearen leialtasunera bideratutako diseinua Iraunkortasun tekniko handiagoa Mantentze- eta konpontze-lan errazak
5. Bigarren bizitza sustatzeko diseinatutako produktua.	Berrerabiltzera bideratutako diseinua Berritzeko / Berregokitzeko / Birmanufakturatze gaitasuna Birmanufakturatutako produktua
6. Partzialki berreskuratu ahal izateko diseinatutako produktua.	Desmuntatzeko erraztasuna Funtsezko piezen eta osagaien estandarizazioa Piezak eta osagaiak berrerabiltzera bideratutako diseinua
7. Produktuaren bizi-amaierarako diseinua.	Erraz birzikla daitekeen produktua Ezabatze segurua
8. Negozio-eredu berrien esparruko produktua.	Produktu berean zenbait funtzio integratzea Zerbitziora bideratutako produktua Erabileran oinarritutako negozio-ereduko produktua Emaizetan oinarritutako negozio-ereduko produktua

Eskaera-inprimakia:

PROPOSATUTAKO KONPONBIDEAREN DATUAK (2/2):

(aurkeztutako konponbide bakoitzak bete beharrekoa)



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO

- Aurkeztutako produktuaren **ingurumen-onuren kuantifikazioa** bidali ezazu, bizi-zikloaren analisisan edo hobetutako beste ingurumen-alderdi garrantzitsuetan oinarrituta: energia-, ur- eta material-kontsumoa; hondakinak; atmosferara, uretara eta lurzorura egindako emisioak; CO₂ emisioak; eta lurzoruaren erabilera murriztua.
- Produktuak badu **ingurumen-etiketarik**, bai produktu osorako (Ekoetiketak, hala nola Ecolabel Europarra, *Cisne Nórdico* (Eskandinaviar Beltxarga) edo *Ángel Azul* (Aingeru Urdina), batzuk aipatzearren), bai bizi-zikloko alderdi jakin baterako (erabilitako materialen baten ziurtagiria, erabilera-faseko energia-eraginkortasunaren zigiluak, baso-kudeaketa jasangarria, birziklagarritasuna edo konpostagarritasuna...)? Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu ezazu.
- Enpresak **UNE-EN ISO 14006:2020 arauan oinarritutako IKS** badu, ba al dago produktua ziurtagiriaren irismenaren barruan? (bai/ez).
- Produktuak badu **ingurumen-informaziorako mekanismo egiaztaturik** (BZA, EPD, Ingurumen-aztarna edo Karbono-aztarna...)? Erantzuna baiezkoa bada, zehaztu ezazu.
- **“Basque Circular BEST 2025”** sarietara aurkeztu nahi duzu? (bai/ez). Erantzuna baiezkoa bada, adierazi zein kategoriatara aurkeztu nahi duzun.

Eskaerak aurkezteko epea **2025eko urtarrilaren 31n** amaituko da, **ostirala**.

“Basque Circular BEST 2025” sariak:

SARIEN HELBURUA:

Ihobe Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak, “Basque Circular Summit 2025” barne, **“Basque Circular BEST”** sarien lehen edizioa iragarri du, **enpresek garatutako ekonomia zirkularreko konponbide onenak** saritzeko, **bai produktuetan, bai zerbitzuetan eta negozio-ereduetan.**

Sari horien bidez, Ihobek, batetik, publikoki aitortu nahi du ekimen horiek jasagarritasunaren hobekuntzari egiten dioten ekarpena, eta, bestetik, katalizatzaile gisa jardun nahi du euskal industria-sarean horrelako proiektuak martxan jartzea sustatzeko.

Sari horiek jasotzeko ezinbestekoa izango da **proposatutako produktuak, zerbitzuak edo konponbideak** Bilboko Euskalduna Jauregian egingo den **“Basque Circular EXPO” delakoan fisikoki ikusgai egotea**, 2025eko apirilaren 2tik 4ra “Basque Circular Summit 2025” dela eta.

Sariekin batera **ez da dirurik emango.**



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



“Basque Circular BEST 2025” sariak:

EZARRITAKO KATEGORIAK:

Lau sari emango dira:

1. Saria **produktu** zirkularrenari.
2. Saria **zerbitzu** zirkularrenari.
3. Saria **negozio-eredu** zirkularrenari.
4. Saria konponbiderik zirkularrena duen **startup**-ari.

Sariak jasotzeko, **“ebaluazio-irizpideak”** atalean aipatutako alderdi guztiak modu orekatuan agertu behar dira.

Gainera, epaimahaiak aipamen bereziak eman ahal izango ditu horietako alderdiren baterako.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



“Basque Circular BEST 2025” sariak:

EPAIMAHAIA:

Ihobek gutxienez 5 kidek eta gehienez 12 kidek osatutako epaimahaia eratuko du. Bertan, **jasangarritasunean eta ekonomia zirkularrean adituak diren pertsonen hartuko dute parte**, eta epaileak aldeaz aurretik jakinaraziko dira. Hauek izango dira bere funtzioak:

- **Aurkeztutako kandidateen kalitateari** buruz erabakitzea eta, hala badagokio, haiek aukeratzea.
- Sariaren **atal bakoitzean hautagaien sailkapena** erabakitzea.

Epaimahaiak, bere erabakien ondoren, sarien esleipena arrazoitzeko akta egingo du.

Erabakiak epaimahaiko kideen **gehiengo osoz** hartuko dira beti.

Epaitza apelaezina izango da, eta **“Basque Circular Summit 2025”** ekitaldian emango da, 2025eko apirilaren 2tik 4ra. Sariak biltzarrean egingo den jendaurreko ekitaldian emango dira.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



“Basque Circular BEST 2025” sariak:

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK:

Epaimahaiak honako irizpide hauek ebaluatuko ditu kategoria bakoitzean:

- **Zirkulartasun irizpideak (puntuazioaren % 50)**

Zirkulartasunarekin eta jasangarritasunarekin, oro har, lotutako alderdiak hartuko dira kontuan. Bizi-ziklo osoan ingurumen-aztarna murrizteko ekarpenak baloratuko dira.

- **Teknologia eta berrikuntza irizpideak (puntuazioaren % 30)**

Produktuaren/Zerbitzuaren edo negozio-ereduaren berrikuntzarekin zerikusia duten alderdiak dira, bai eta hura fabrikatzeko erabilitako teknologiarekin zerikusia dutenak ere. Enpresaren lehiakortasuna hobetzen eta merkatuan nabarmentzen nola laguntzen duten aztertuko da.

- **Komunikazio irizpideak (puntuazioaren % 20)**

Proposatutako konponbidea jakinarazteko modua, balio-ekarpena bezeroari helarazteko modua eta horretarako erabilitako tresnak eta kanalak baloratuko dira.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO



“Basque Circular BEST 2025” sariak:

ESKATUTAKO DOKUMENTAZIOA:

Eskatutako dokumentazioa **“Basque Circular Expo”** erakusketan parte hartzeko aurkeztu zen berbera izango da. Hori dela eta, sarietan parte hartu nahi duten enpresek erakusketan parte hartzeko eskaera-inprimakian hala adierazi beharko dute, eta **sariaren kategoria aukeratu beharko dute.**

Enpresa batek **proposamen bat baino gehiago** aurkez ditzakeenez, aukeratu ahal izango du sarietara zein(ek) aurkeztu nahi d(it)uen eta kasu bakoitzerako kategoria.



2025
BASQUE
CIRCULAR
EXPO





2025
BASQUE
CIRCULAR
SUMMIT

Edukien aurkibidea

01 Basque Circular Summit 2025: Time for action

02 Basque Circular FORUM: biltzarra

03 Basque Circular EXPO: soluzio zirkularren erakusketa

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD

04 Basque Circular VILLAGE: funtsezko eragileen standak



2025 BASQUE CIRCULAR VILLAGE



Zer da Basque Circular VILLAGE?:

Aurtengo edizioaren berritasun gisa, Basque Circular Summit 2025ek lehen aldiz jarri du martxan **Basque Circular VILLAGE**. Bertan, **ekonomia zirkularraren alde lan egiten duten eragile eta erakunde** guztiek beren jarduerak partekatzeko eta ezagutarazteko gunea izango dute.

Basque Circular VILLAGE **20 stand modularren** inguruan egituratuko da (guztiak ezaugarri berberekin); standak jasotako proposamenen arabera esleituko dira.

Hautaketa prozesuan kontuan hartuko da erakundeen balio proposamena, beren jarduerarekin **baliabideen erabilera eraginkorragoa** bultzatzen duten neurrian, ingurumen **jarduketarako beste estrategia nagusiekin** batera (klima aldaketaren, biodibertsitate galeraren... aurkako borroka).

Konponbideak eta ikuspegiak ekonomia zirkularraren hainbat ikuspuntutatik baloratuko dira: **governantza, finantzak, negozioak, eragile anitzeko lankidetzak...**



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE



Zer da Basque Circular VILLAGE?:

NOLAKOAK IZANGO DIRA STANDAK?:

Stand guztiek ezaugarri berberak izango dituzte. Hauek izango dira, oro har:

- Tamaina: **3 m² (gutxi gorabehera)**.
- **Seinaleetarako horma** (panel horren diseinua enpresa erakusketariak egingo du) eta **logotipoa** (errotulagarria, inprimatua ere).
- Led bonbillen bidezko argiteria.
- Mahai-gaina.
- **Gauzak gordetzeko armairua** sarrailarekin.
- 2 aulki altu.
- 3 gailutarako elektrizitatea.
- **Telebista pantaila**.
- Standa egiteko erabiliko diren materialek ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatu beharko dituzte, **jasangarriak eta berrerabilgarriak** izanik.



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE



Zer da Basque Circular VILLAGE?:

“SIDE EVENTS”:

BCS2025eko biltzar atalean, **Basque Circular FORUM**ean hain zuzen ere, programa ofizialarekin batera, 8 saio gorde dira **“side events”** edo ekitaldi paraleloak garatzeko.

Basque Circular VILLAGE osatzen duten erakundeek **ekitaldi paralelo horietako bat antolatzeko aukera** izango dute. Horretarako, eskaera-inprimakian saioaren helburua, parte-hartzaile potentzialak eta publiko objektiboa adierazi beharko dute.

Eskaerak ebaluatu ondoren, lhobek onartu dituen saio paraleloen berri emango du. lhobek **kosturik gabe** emango dizkio hautatutako erakundeari bai **aretoa** bai saioa egin ahal izateko **baliabide teknikoak**, eta saioa erakunde antolatzaileak kudeatuko du osoki.

Basque Circular VILLAGEen dauden erakundeek **bakarrik ahal izango dute “Side events”** prestatu.



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE



Eskaera-inprimakia:

Basque Circular Village 2025eko parte izatea eskatzeko inprimakiak bi atal bereizi izango ditu: bata, izaera orokorrekoa, erakundearen eta harremanetarako pertsonaren datuekin, eta bestea, espezifikoa, eskaintako zerbitzu eta soluzio zirkularren zerrendarekin.



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE

ERAKUNDEAREN DATUAK:

- Entitatearen izena.
- Helbidea (kalea, zenbakia, PK, herria eta probintzia).
- IFZ.
- Web-a.
- Hautagaitza kudeatzeko harremanetarako pertsona/k. Izena, abizenak eta kargua / E-mail / Telefonoa.

ZERBITZUAK ETA SOLUZIOAK:

- **Entitateak ekartzen duen ekonomia zirkularreko soluzioa**ren deskribapena. Nola laguntzen du zure entitateak ekonomia zirkular baterako aldaketan? Eskalagarria eta transferigarria al da? Zerk egiten du soluzioa BCS2025era joaten den publikoarentzat bereziki inspiratzailea?
- **“Side event”** bat garatzeko proposamena egiten al da? Zein edukirekin? zein publikori zuzenduta egongo litzateke?

Oharra: Dokumentuak eskabide honi erantsi ahal dizkiozu. Zure erakundea Basque Circular Village 2025eko stand baten anfitrioi aukeratzen bada, konpromisoa hartzen duzu 2025eko apirilaren 2an, 3an eta 4an Bilboko Euskalduna Jauregian ekitaldiak irauten duen bitartean BCS2025eko erakusketa eremuan aktiboki egoteko.

☑ **Basque Circular Summit 2025eko Erakusketa eremua antolatzeko “Zehaztapenak eta baldintzak” irakurri eta onartzen ditut.**

Eskaerak aurkezteko epea 2025eko urtarrilaren 17an amaituko da, ostirala.


Zehaztapenak eta baldintzak:

PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEK ONARTU BEHARREKOAK (1/2):

1. Parte hartzen duten erakundeek konpromisoa hartzen dute 2025eko apirilaren 2an, 3an eta 4an Basque Circular Summit 2025ek Euskaduna Jauregian (Bilbo) duen erakusketa-eremuan **aktiboki egoteko**, eta biltzarraren atsedendietan ezin izango dute standa hutsik utzi.
2. **Debekatuta dago salmenta oro** erakusketa-gunean eta esparru osoan.
3. Parte-hartzaile bakoitzak **750 € ordainduko ditu** standaren fabrikazio- eta pertsonalizazio-kostuengatik; **erakunde erakusketariak hautatu ondoren fakturatuko dira**. Ordaintzeko epea 20 egunekoa da, proposamena onartu dela jakinarazi eta gero.
4. Debekatuta dago lhoberen izena edo logotipoa erabiltzea, baita **"Basque Circular Summit 2025"** marka edo haren laburdura ("**BCS2025**") edo logotipoa ere, lhoberen alde aurreko baimen idatzirik gabe.



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE




Zehaztapenak eta baldintzak:

PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEK ONARTU BEHARREKOAK (2/2):

5. Erakunde erakusketariak kokapenari eta bere eskura jarritako altzariei buruz **ihobek emango dizkion jarraibideak betetzeko** konpromisoa hartzen du. Era berean, kongresua itxi eta berehala, stand eremutik eta ekitaldiaren lekutik kenduko ditu bere gauzak.
6. Erakunde erakusketariak ekitaldian dauden ondasun higigarriei eta higiezinei **eragindako kalte guztien erantzule** da.
7. Erakunde erakusketariak konpromisoa hartzen du **suteen aurkako segurtasunaren eta beste segurtasun-neurri batzuen** arloan ekitaldia egiten den tokiko agintariek edo langileek emandako **jarraibideak betetzeko**.
8. Eztabaida, desadostasun eta erreklamazio guztiak **aldean arteko negoziazioen** bidez konponduko dira nagusiki. Akordiorik ez bada lortzen, ihobek ezarritako irizpidea ezarriko da.



2025
BASQUE
CIRCULAR
VILLAGE





ERRONKA GARBIA

EKITALDI EVENTO

JASANGARRIA INGURUMENERAKO
AMBIENTALMENTE SOSTENIBILE



2025 BASQUE CIRCULAR SUMMIT

2025eko apirilaren 2an, 3an eta 4an
Euskalduna Jauregia – Bilbao
basquecircularsummit.eus



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, TRANTSIZIO
ENERGETIKO ETA
JASANGARRITASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
TRANSICIÓN ENERGÉTICA Y
SOSTENIBILIDAD